



159. zk. 2006ko urriaren 23a

Aurkibidea
Iritzia
Euskadi
Kontsumoa
Segurtasuna
Mundua
Kultura
Elkarrizketak
Emakumea
Motorra

Fernando Puras Nafarroako Gobernuko presidentziarako PSNko hautagaia



Nafarroako Gobernuko administrazio hierarkia guztietan egona da, baina politikan inoiz ez da egun bezain muturrean egon. Esker onekoa da Carlos Chivitekin. "Azpimarragarria da oso PSN berrorientatzean eta zuzendaritza politikoan egiten ari den lana. Primerako idazkari nagusia dugu. Urtetan iraun dezala" dio Purasek. Ez omen du inoiz PSNren buruzagitzagatik Cintruenigokoarekin borrokan egingo, adierazi du hautagai sozialistak. Tuterarraren ustez, UPNrengatik Nafarroa itxiegia dago: "bere baitan bizi da". Eskuartearen duen erronka politikoa nolana hikoia ez bada ere, esperantzatsu dago.

Ezpala

Jose Mari Zeberio Munduko Landaguneko idazkari exekutiboa



A urki "Garapen solidarioaren alde: erronka eta konpromisoa" lemapean, lau kontinenteetako berrogei aditu hurbilduko da gurera, garapen gaietan dituzten esperientziak zein gogoetak ezagutarazteko xedez. Aldaketa 16 bizkor ibili da oraingoan, eta "esklusiban" garapen solidarioari buruzko lehendabiziko gogoeta erdietsi du, beste hausnarketa askoren artean, Jose Mari Zeberioaren eskutik: "Ezin diogu egungo sistema ekonomikoari bereak egiten utzi. Hots, ez da, 'atera ditzala bakoitzak bere babak eltzetik!' delakoa. Denon eginkizuna eta erantzukizuna da elkartasunaren bidetik jotzea, batzuek aurrera egiten duten bitartean, besteek atzera egin ez dezaten. Etikoa izatea ezinbestekoa da, garapena guztion artekoa eta guztiontzat izateko".

Olaia Razkin

Iudger Mees Historialaria eta idazlea



Beste asko bezala, kirol ezezaguna da Euskal Herrian izotz gaineko patinajea. Baina, beste askorekin gertatu bezala ere, horrek ez du esan nahi diziiplina horretan gurean maila oneko kirolaririk ez dagoenik. Bi izotz pista baino ez daude, Donostian eta Gasteizen, baina bertako bi taldeek lan eskerga egiten ari dira patinajea ezagutarazteko eta emaitza onak lortzeko. Azken horren adibide da Maria Soler (Donostia, 1989). Bera izan da Euskadiko Txapelduna azken bi urteetan, junior bigarren mailan. Patinajeaz gain, "lo egitea" da gehien gustatzen zaiona, baina gimnasia, igeriketa sinkronizatua eta balleta ere laket ditu.

X. L. Labaien

Gutxienezko Erresoluzioa: 800x600
aldaketa@aldaketa16.info